



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



I. LANKETA (1. atala)



ULERMENA

1. Barbara da lehen atal honen protagonista. Zer datu eman dizkigu idazleak hari buruz? Zer dakigu? Nolakoa da? Non dago? Zertan? Besterik?
2. Zergatik erabaki zuen Argentinara alde egitea?
3. Eleberri honetako istorioa hasi zen egunean, 2004an, Barbara parketik atera eta norabide bat hartu zuen, baina hankek, oharkabea, beste leku batera eraman zuten. Nora?
4. Zer egin behar zuen Barbarak gau hartan?
5. Zer topatu zuen Gerardo Masillo idazle argentinarraren inguruko erakusketan?
6. Non bizi da JJ, Barbararen lagun mina?
7. Barbara erakusketara itzuli zen argazkiaren bila. Lortu al zuen lapurtzea?
8. Nor zen argazkiko emakumea?
9. Zer erabaki hartu zuen Barbarak?
10. Argazkiko emakumea Barbararen ama dela uste duzue? Ez dugu datu askorik, baina garatu hipotesi bat. Ama baldin bada, zer gertatu da? Eta, ama ez bada, zergatik iruditu zaio badela? Idatzi hiruzpalau lerro.



LEXIKOA

Lotu beltzez nabarmenduta dagoen hitza dagokion sinonimoarekin.

apur - handi - bota - indar - burugogorkeria - aje - entzun -
moztu - ordeztu - gaizto - bortitz - sekulako - hondatu - desesperazio

- a) Jatetxe eta saltokiz beteta zegoen kale bateko jendetzak **eten** zion haria.
- b) Horietako pare bat irakurri zituen, baina ez zitzaizkion **apartekoak** iruditu.
- c) Mugimendu **zakar** batez hizketan ari zitzaion emakumearengandik askatu zen.
- d) Bazenekien igandea izanda sekulako **biharamuna** izango nuela eta, hala ere, esnatu egin nauzu.
- e) Eszenatoki gaineko segundo bakoitza nuen kontrolpean, baina burua hutsik geratu zitzaidan; **kakaztu** egin nuen.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



- f) Negarrari eusteko saiakera **galanta** egiten ari zen.
- g) Kaleko atea igaro **beharrean**, eskuinetara bira erdia eman, eta komuneko atea igaro zuen.
- h) JJren babesarengatik eta **egoskorkeria**rengatik izan ez balitz, ez zuen Buenos Airesera joateko erabakirik hartuko.
- i) Amaren hutsunea **etsipen** gordin batek bete zuen hainbat urtetan.
- j) Horrelakoetan, arrazoiketek paperezko hegazkin batek baino **hauspo** txikiagoa izaten zuten.
- k) Lagunaren azken hitzak **aditu** izan ez balitu bezala berrekin zion elkarrizketari.
- l) Aitaren ustekabeko heriotzak guztiari aurre egiteko gelditzen zitzaizkion indar **aleak** eraman zituen.
- m) Ez zuen bere burua aitaren inguruko pentsamendu **anker** horiei guztiei aurre egiteko gai ikusten.
- n) Gotorlekua **eraitsita**, aita galduta, ihesari ekitea beste aukerarik ez zuen izan.



GRAMATIKA

1. Nominalizazioa


Jarri dagokion nominalizazio marka parentesiko aditzari.

- 1. Beste buelta bat (eman) _____ denbora zuen oraindik.
- 2. Agian ez zegoen (buelatu) _____ prest.
- 3. Agian ez zen (buelatu) _____ gai.
- 4. Gogaikarria egiten zitzaion, gainera, bere buruaren erabateko kontrolik ez zuela onartu behar (izan) _____.
- 5. Gutuna ez (ireki) _____ erabaki irmoa hartu zuen orduan.
- 6. Negarrari (eutsi) _____ saiakera galanta egiten ari zen.
- 7. Argazkia beira baten atzean (egon) _____ ez zuen gehiegi laguntzen.
- 8. Deseroso (sentitu) _____ hasia zen Barbara.
- 9. Ez zen handik (atera) _____ ausartzen.

2. Atzizkiak

2.a. Atal honetan atzizkidun hitz batzuk agertu zaizkigu. Ezagutzen duzue beste hitzik? Osatu taula atzizki bera duten hitzak erabiliz.

-tza: bizitza, jendetza, ...
-keria: egoskorkeria, erokeria, ...
-tzaile: ikuskatzzaile, laguntzaile, ...
-ka: dardarka, korrika, muzinka, lasterka, ...
-ari: zaindari, zuzendari, zerbitzari, ...
-dun: arduradun, ...



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak




2.b. Lotu hitz bakoitza dagokion atzizkiari.

diru	-ka
barrez	(ekintza errepikatua)
zikin	
sine(t)s(i)	
musika	-keria
ertzain	(gaitzesgarria dena)
dantza	
harro	
zuzen(du)	-tza
hondar	(multzoa edo ugaritasuna)
ilustra(tu)	
berekoi	
manipula(tu)	-lari
oihu	-ari
presa	(lanbideak adierazteko)
haur	
bota	
ida(t)z(i)	-dun
alkohol	(zerbait duena)
itzul(i)	
enpresa	
sasi	-tzaile
diru	(ekintza baten egilea adierazteko)
indar	



MINTZAMENA

1. Barbara Gerardo Masillori buruzko erakusketa batera joan da Buenos Airesen, miresten duen idazle baten inguruko erakusketa batera, alegia.
 - Zuek egin al duzue inoiz halakorik? Egon zarete miresten duzuen artistaren baten gaineko erakusketaren batean? Bisitatu al duzue harena izandako etxea? Dokumentalik ikusi?
 - Artistaren baten lana gustatutakoan, jotzen duzue haren hasierako lanak nolakoak ziren ezagutzera? Estiloa asko aldatu duen artistarik ezagutzen duzue?
 - “Kontakizun erritmo bizia, hesteetan korapilatzen ziren tramak, hezur-haragizko pertsonaiak... aparta benetan” (10. or.). Zer eskatzen diozue zuek liburu bati?
2. Barbarak JJri ematen dio egindako guztiaren berri; arazoak, zalantzak, etab. lagunari kontatzen dizkio.
 - Zeuek ere baduzue horrelako lagunik? Dena kontatzeko beharra izaten duzue ala nahiago izaten duzue gauzak barruan gorde?
 - Zein da erosoena, zuen ustez, telefonoz, aurrez aurre ala Whatsapp bidez egitea?
3. “Mugikorrarekin argazki bat atera zion, eta sudurra igurtzi zuen berrirori ere. Gorroto zuen urduritasunak eragiten zion keinu hori, bere txeritxo sudurraren eragileetako bat zelakoan zegoen. Gogaikarria egiten zitzaion, gainera, bere buruaren erabateko kontrolik ez zuela onartu behar izateak” (18. or.).
 - Zuek ba al duzue horrelako edo bestelako keinu errepikaturik? Eta ingurukoek? Deskribatu ezagutzen dituzuen guztiak.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



4. Barbara dena kontrolpean izan zalea da, ez du maite bulkadei jarraitzea. Zuek? Nolakoak zarete?
5. Zuen ustez, zer aurkituko dugu eleberri honetan? Komentatu genero bakoitza banan-banan.
 - Istorio errromantikoa
 - Komedia
 - Drama
 - Kontakizun historikoa
 - Trama poliziakoa
 - Fenomeno paranormalak
 - Kritika soziala
 - Misteriozko edo suspentsezko istorioa

II. LANKETA (2. atala)



ULERMENA

1. Bigarren atal honetan, Abelen ikuspuntutik kontatu zaigu istorioa. Zer dakigu hari buruz? Eta Dorletari buruz? Zein beste pertsonaia agertu dira?
2. Non eta norekin bizi zen Abel 2002an? Eta Dorleta?
3. Barbara jaio eta handik gutxira, Dorletak ihes egin behar izan zuen. Noiz jaso zuen Abelek Dorletaren lehen gutuna? Zenbat denbora zeraman Abelek Dorletaren berririk gabe?
4. Zer izen berri hartu zuen Dorletak?
5. 2002an jada, noiz hitz egin zuten Dorletak eta Abelek azkenenengo aldiz?
6. Zer agindu zion orduan Dorletak Abeli?
7. Jaso al zuen espero zuen gutuna azkenean?
8. Zein zen Abelen beldurra?
9. Nor da Juan?



LEXIKOA

Asmatu zein hitzi dagokion definizio bakoitza. Kontuan hartu lehen letra bere lekuan dagoela.

- a) Eragotzi, ez gertatzea lortu: *e n i i d k*
- b) Behar handia: *p r i m a e*
- c) Kolpe baten ondorioz azalean sortzen den marka morea: *u l e u r a b d*
- d) Kideak salatzen dituen pertsona: *s a a a r i t l*
- e) Desadostasuna, haserre edo kexa adierazteko tonuan: *m a a r r a r m e n*
- f) Ohea estaltzeko erabiltzen den koltxa: *e k l a s t i*
- g) Norbaiti errua harena dela esan: *l p o a r t u e*
- h) Zarata handia: *b r u n r a b u*
- i) Hegan atera: *h g e a l t u a d*
- j) Nahi gabe eragiten den kaltea: *a b l o o d o o i r n*
- k) Ugaria den zerbait are gehiago ugaritu: *a t u a g e r o*
- l) Norbaiti edo zerbaiti garrantzia kendu, gutxiago dela pentsatu: *g i t x u s t e i*



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

1. Berridazketak

Berridatzi esaldiak proposatutako egitura erabilita.

a) Beti zen zerbait gertatuko zitzaion beldur, ezin zuen ekidin, urte asko pasatu ziren arren. (ba-... ere)

b) Dorletaren ondoan berriro ere aterpea eraikitzeko unea zen, gabeziaz betetako hutsuneak estaltzekoa, gutun bidez izan behar bazuen ere. (nahiz eta...)

c) Bitan pasatu zituen gutun guztiak badaezpada, baina ezer ez. (...arren)

d) Arriskurik ez zegoela zenioen, baina arrazoi izanda ere, alde batekoez ari zinen zu. (...agatik)

2. JAKIN eta BELDUR IZAN

JAKIN aditza zehar estiloan

Badaki ... -(e)la: *Abelek **badaki** Barbara ez dela jada nerabe hutsa.*

Ez daki ... -(e)n ala ez: *Abelek **ez daki** Dorleta itzuliko den ala ez.*

Ez daki non/norekin/zergatik/... -(e)n: *Abelek **ez daki** Dorleta **non** dagoen.*

Ez daki ... -(e)la: *Barbarak **ez daki** amak aitari gutunak idatzi dizkiola.*

Ezezkoa den arren, aditzak *-la* marka hartzen du aipatzen den ekintza egia dela adierazteko.

Hau da: amak aitari gutunak idatzi dizkio, baina Barbarak ez daki.

BELDUR IZAN


*Dorleta berriro desagertzeari **beldurra diot**.*

*Dorleta berriro desagertzeak **beldurra ematen dit**.*

*Dorleta berriro desagertzearen **beldur naiz**.*

*Dorleta berriro desagertzeak **beldurtzen nau**.*

*Gutun bidez komunikatzeari **beldurra hartu diot**.*



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



Pertsonaia bakoitzak informazio jakin bat du, badaki zerbait besteek ez dakitena. Irakurleak, momentuz, pertsonaiek azaldutakoa daki. Era berean, pertsonaia zerbaiten beldur ere badira. Bete koadroa, gogoratzen dituzuen datuekin edo pentsa dezakeela imajinatzen duzuenarekin.

Abel(ek)	Dorleta(k)	Barbara(k)	Irakurlea(k)
Badaki...	Badaki...	Badaki...	Badaki...
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
Ez daki...	Ez daki...	Ez daki...	Ez daki...
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-
Beldur da...	Beldur da...	Beldur da...	Beldur da...
-	-	-	-
-	-	-	-
-	-	-	-



MINTZAMENA

1. Abel eta Dorleta gutun bidez komunikatzen dira, Interneti esker urruneko harremanen kilometroak erdira murrizten direla dio, baita alabarekin aurrez aurreko komunikazioa indartu behar duela ere.

- Zuek nola komunikatzen zarete gehien? Zertarako nahiago duzue bakoitza? Noiz erabili izan duzue?

Gutunak
Bideo-deiak
Sare sozialak
Mezularitza-aplikazioak
Aurrez aurreko solasaldia
Besteak


- Liburuan adierazten zaigu guraso eta seme-alaben arteko harremanean komunikazioa dela gakoa. Adituek hala gomendatzen omen dute. Berdin bizi al dute komunikazio behar hori gurasoek eta nerabeek? Nola bizi (izan) duzue zuek?

2. “Barbararen gelako paretei erreparatu zien Abelek une batez: arrazoi zuen, desagertu ziren *Backstreet Boys* eta *Take That*en posterrak, ohe gainean panpina bakarra zuen orain, kutunena; ipuinen lekua eleberriek hartu zuten erabat. Nerabezaroa amaitzen ari zitzaion logelari” (30. or.).

- Nolakoa zen zuen logela nerabetan?
- Noiz aldatu zenuten?
- Barbarak bezala, zuek ere gorde zenuten panpinarik edo jostailurik kutunena?

3. “Kafearekin katilu bat goraino bete, eta larrialdietarako tabako paketetik zigarro bat hartu zuen.

Terapeutaren aholkua izan zen pakete hori etxean gordetzea, antsietateari aurre egiten lagunduko omen zion” (27. or.).



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



“Paperezko poltsa bat hartu zuen sukalde azpiko tiraderatik. Bertan eseri zen, baldosa gainean, eta poltsa barruan hasi zen arnasa hartzen. Ehun..., laurogeita hamazazpi... Hirurogeita zazpira iristerako, hobekuntza nabarmena nabaritu zuen; poltsa alde batera utzi, eta zeroraino bukatu zuen alderantzizko zenbaketa.” (33. or.).

- Ezagutzen al duzue lasaitzeko bestelako teknikarik? Erabili al duzue inoiz baten bat?

4. “Laurogeiko hamarkadara eraman zuen bueltan Juanen ahotsak, Bilboko garaietara. Gordetako oroitzapenen kutxa bat-batean ireki zen, eta denak batera atera zitzaizkion. Begi niniak zinemako pantaila bihurtuta, urte haietako pasarteak ikusten hasi zen. Dorleta ezagutu zuen eguna, fakultateko kafetegian. Leitzatik Bilbora joana zen hura ikastera. Juan eta hirurak lagunak ziren urte haiek, Barrenkaleko parrandak, zerbezak, haxixa eta bestelakoak partekatzen zituztenekoak, eta manifak. Urte ero zoriontsuak izan ziren” (34. or.).

- Bizi izan al duzue laurogeiko hamarkada? Zer oroitzapen duzue? Parrandak, drogak, manifak... horrekin lotzen duzue zuek ere?
- Gainerakoek, zer entzun duzue garai hari buruz?

III. LANKETA (3. atala)



ULERMENA

1. Lotu pertsonaia haren bizilekuarekin:

Barbara	Iruñea
Abel	Paris
JJ	Betelu
Amona Balen	Leitza
Gerardo, Anäelle	Buenos Aires
Juan Mugika	Leitza
Matias	Sevilla

2. Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

1. Atal hau Leitza, Betelun, Iruñean, Parisen, Donibane Garazin eta Sevillan gertatzen da.
2. Zaharren egoitzako langileek harrera beroa egiten diote Barbarari.
3. Anäelle ia seguru dago Isabel eta Barbararen ama pertsona berbera direla.
4. Matias ez zuen Isabel ezagutu.
5. JJK uste du egoera argitzeak Barbarari lagundu egingo diola.
6. JJK azkenean ez dio Betelura lagundu.
7. Inauteriak ziren Betelun Barbara heldu zenean.
8. Abel autoa errepidetik irtenda izandako istripuan hil zen, zingira batean erorita.
9. Abelek bere harremanei buruz hitz egiten zion alabari.
10. Aita hil baino lehen, Barbarak uste zuen ama hilda zegoela eta aitak neska-lagun berria zeukala.
11. Amona Balenek keinu berezia egin zuen Barbarak Paris aipatutakoan.
12. Barbara epaiketa baten zain zegoen, gazteagoa zela delitu bat egiteagatik.
13. Barbarak epaiketan deklaratzeari erabaki du azkenean.
14. Dorleta iheslari politikoa izan zen.
15. Matias, Gerardo Masilloren erakusketako arduraduna, Gerardo eta bere bikote Anäelleren semea da.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



LEXIKOA

Bete hutsuneak zerrendako hitz egokia erabilita.

esanguratsu - anabasa - buxatu - intziri - erreparatu -
tarteka - on egin - porrot - uko egin - tematu - zin egin - fin

- Amona nola aurkituko zuen ere ez zekien; dementzia azkar garatzen ari zitzaien, eta ia hasieratik _____ zion telefono bidezko komunikazioari.
- Birritan eskaini zuen JJK bere burua laguntzaile, eta Barbara ezezkoan _____ zen.
- Umeen txapel eta osagarri koloretsuei _____ zien, eta ohartu zen Inauteriak ate joka zirela.
- _____ -k izugarrizko zama eragin zion gorputzean, eta esertzeko beharra jarri zitzaien bat-batean.
- Gustura egingo zuen negar saioa, baina ez zitzaizkion malkoak ateratzen; gehiegi balira bezala zen, _____ -ta egongo balira bezala.
- Hasieran _____ ikusten zuen Isabel, baina aspaldi zen ez zuela haren berririk.
- Negar _____ txiki batzuekin hasi zen, malkorik gabeak. Ohean etzan ahala, handitzen joan zen malko jariora.
- Tiradera guztiak hustu ondoren, ohe gaineko _____ -ri begiratu zion Barbarak.
- Oso gizon txukuna zen, ordenatua eta _____ -a.
- Asteburuan Iruñara joatea pentsatu du, _____ -go baitio etxetik ateratzeak.
- Gizonak esan zion aurrez aurre hitz egin behar zutela. Beraz, esan nahi ziona garrantzitsua, _____ -a, izango zen.
- Bere buruari _____ zion, beharrezkoa balitz, JJri laguntzeko eskatuko ziola.



GRAMATIKA

1. Denborazko egiturak


Atal honetan denborazko egitura ugari dago. Beheko taulan dituzue batzuk. Saiatu zutabeetako bateko denborazko egitura bakoitzarekin esaldi bana egiten, liburuan orain arte gertatutako eszenetan oinarrituta.

A IKASLEA

orduko
-n egunetik
-netik
aurretik
ia hasieratik
ia hogeita lau ordu lehenago
azkenean
berekala
19:30ean
pare bat minutuko etenaldiaren ondoren
-nerako

B IKASLEA

gero
aspaldi
azkenean
bitartean
berekala
segituan
une batez
une horretan
galdetu izan zionetan
ahala
-n bakoitzean



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



2. ARAZI egitura

Irakurri adibideak, eta osatu beheko taula.

- “Ingelesa, gaztelania eta hainbat keinu baliatuz, eraikineko atezainari noren bila zebilen azaldu zion, eta bere egoeraren larria **helarazi** nahi izan zion” (41. or.).
- “Kontrakoa **sinetsaraziko** zion keinu bat behar zuen, eta Matiasen begirada bilatu zuen” (47. or.).
- “Bere buruari **zin eginarazi** zion, beharrezkoa balitz, Jjri laguntzeko eskatuko ziola, behar zuela adieraziko ziola” (59. or.).

Demagun Barbara zerbait egitera bultzatu dezakezuela. Zer eginaraziko zenioke **Matiasetikiko** harremanean? Eta ikerketan? Eta epaiketan? Talde bakoitzak aukeratu zutabe bat, eta idatzi:

Ikerketa	Epaiketa	Matiasetikiko harremana



MINTZAMENA

- Atal honetan irakurri dugu Barbararen aitak armairua txukun-txukun antolatuta daukala eta Barbara urduri jartzen dela erabateko ordena hori ikustean.
 - Zuek nola antolatzen duzue armairua? Irizpide zehatzen bati jarraitzen diozue? Kolorea, arropa mota...
 - Ordena ala desordena? Zerk urduritzen zaituzte gehien?
- “Asko kostatzen zitzaion besteek harengatik esfortzu edo sakrifizioak egingo zituztela onartzea. Erresistentzia zion laguntza eskatzeari. Autosufizientzia. Zeure burua hitz bakarrean definitu beharko bazenu, zein izango litzateke? Autosufizientzia; garbi zeukan Barbarak. Eta, era berean, garbi zeukan, askotan ezaugarri bikaina izan arren, kalte egiten ziola gehienetan. Bakarrik uzten zuen. Autosufizientzia handiagora behartu. *Bai, laguntza behar dut.* Hain zaila al zen?” (36. or.).
 - Autosufizientzia onuragarria ala kaltegarria izan daitekeela uste duzue?
 - Kostatzen zaizue laguntza eskatzea? Zein egoeratan?
 - Nola definituko zenukete zeuen burua hitz bakarra erabilita?
- “—Jai? Nola emango dizute, ba, jai egun batetik bestera?
- Hartu egingo dudala esan dizut, ez emango didatenik; gastroenteritis bat, adibidez... Ez dut uste Mercadonako inor topatuko dugunik Betelun” (36. or.).
 - Esan al duzue inoiz gezurrik lanera ez joateko?
 - Egingo al zenukete? Zein kasutan?
- Jjk behin baino gehiagotan zirikatzen du Barbara Matias dela-eta. Zer uste duzue gertatuko dela bien artean? Zuek ere zirikatzen dituzue lagunak horrelako gaien inguruan?



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



IV. LANKETA (4. atala)



ULERMENA

1. Juanekin hitz egin duenean, zer deskubritu du Abelek Dorletari buruz? Nola sentitzen da hori jakindakoan?
2. Zergatik egiten du negar Barbarak gauez?
3. Zergatik bidaiatzen du hainbeste Abelek?
4. Amona Balenek eta Abelek elkarri begiratzen diotenean, zer nabaritzen du Abelek amonaren begietan?
5. Zerk eragin zuen Dorletak ETA uztea?

Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

1. Abelek uste zuen Juanek bazekiela zer gertatu zitzaion Dorletari.
2. Juanek uste zuen Dorleta arriskuan zegoela.
3. Abelek Parisera joatea erabaki zuen, Juanekin berba egin ostean.
4. Gasolindegian, bertan zegoen gizon batekin Euskal Herriari buruz aritu zen hitz egiten Abel.
5. Abel ETArekin aldekora zen.



LEXIKOA

Lotu definizio bakoitza dagokion hitzarekin.

- | | |
|--|----------------|
| 1. Zerbait egiteko animoa, umorea | a) ziria sartu |
| 2. Hatzekin edo eskuekin bilatu, arakatu | b) berretsi |
| 3. Norbaiti gezurra esan | c) estutu |
| 4. Lodia edo zabala ez dena | d) aitortu |
| 5. Gure nahia betetzeko egiten dugun tranpa, amarrua | e) berandutu |
| 6. Berandu iritsi | f) azpijoko |
| 7. Ezkutuan egon den informazioa adierazi | g) gaineratu |
| 8. Norbaiti presio egin | h) ezustean |
| 9. Aurretik esandako zerbait berriro baieztatu | i) sutu |
| 10. Zerbait espero izan gabe gertatu | j) aldarte |
| 11. Zerbait gehitu | k) haztatu |
| 12. Asko haserretu | l) mehar |



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

1. OMEN eta OTE partikulak

OTE partikula, maiz, galdera erretorikoak egiteko erabili ohi da. Horretaz aparte, baina, zalantza adierazten duten esaldietan ere erabiltzen da, beheko bietan esaterako.

- “Lau lagun baino ezin ziren bisitan sartu, eta horietatik guztietatik nortzuk sartuko **ote** ziren asmatzen saiatu zen Abel” (61. or.).
- “Ezagutuko **ote** zuen zalantza zeukan, beste gizon bat aurkituko **ote** zuen” (63. or.).

Zer zalantza duzue zuek, liburu honi dagokionez? Zer asmatu edo jakin nahiko zenukete? Sortu esaldi bana OTE erabilia:

- a) _____
- b) _____

OMEN partikula, ordea, gure begiez ikusi ez baina hala dirudiena edo kontatu digutena adierazteko erabili ohi dugu.

- “Alboko gela batera eraman zuten, han egon behar omen zuen beste bisitak amaitu bitartean” (66. or.).
- “Haren Pariseko kontaktuak ere ez omen zekien ezer, erakundeak Dorleta aspaldi askatu zuela berretsi zion; alde horretatik lasai egoteko” (71. or.).

Oso praktikoa da, esaterako, txutxu-mutxuak asmatzeko. Asmatu liburuko pertsonaiei buruzko bi, OMEN erabilia:

- a) _____
- b) _____

2. BA-... BEZALA egitura

Askotan erabiltzen du idazleak atal honetan BA-... BEZALA egitura. Esaterako, azpiko esaldian. Ikusi eredia, eta asmatu esaldietan zein den aditz egokia:

- “Denbora gelditua zen pareta haien artean, Barbara Argentinara joan zen eguneko biharamuna balitz bezala” (51. or.).

- a) Gertatutakoa zerbait naturala izan ba-_____ bezala hitz egiten zuen Juanek, gertakariak nolabaiteko lege fisiko bati jarraitu izan ba-_____ bezala: kausa-ondorioa.
- b) Lo zegoela, kolpeaz esnatu zen Abel, bat-batean; oroitzen ez zuen amesgaizto batetik norbaitek ostikoz atera izan ba-_____ bezala.
- c) Juanek esandako hitzak buruan bueltaka geratu zitzaizkion Abeli: “askatu” esan zuen, erakundeak Dorleta aspaldi “askatu” zuela; bizitakoak bizi izan eta gero, ezer edo inor askatzea posible ba-_____ bezala.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



MINTZAMENA

1. “Kafeari zurrupada eman zion unean, bikote euskaldun bat sartu zen. Euskaraz ari ziren. Kafea bukatu eta kanpora atera zen zigarro bat erretzera, ez zeukan kidetasun eta anaitasunerako aldarterik. (...) Barruko talde jendetsuan zegoen gizonetako bat bere alboan jarri zen, eta zigarroa atera zuen. Patrikak haztatzen ikusi zuenean, sua eskaini zion Abelek. Metxeroa hartu, eta zigarroa piztu zuen. Ekialdeko haizea zegoen, eta aurpegira joan zitzaizkion bestearen keak Abeli; pauso bat eman zuen aurrera.

—Sarri etortzen zara? —galdetu zion gaztelaniaz gizonak, edo hori galdetu ziola uste zuen behintzat; hain azkar eta gutxi ahoskatuta ez zion garbi ulertu.

—Lehen aldia da, eta ez dut itzultzeko asmorik.

—Negozioak, orduan —esan zion, eta zupada luzea eman zion zigarroari.

—Esan daiteke baietz.

—Zorte on” (61.- 62. or.).

- Abelek ez du inorekin hitz egiteko gogorik. Ihes egiten die euskaldunei, eta hala ere gizon bat, zigarroaren aitzakian, harekin hizketan hasten da. Zuek ba al duzue ezezagunekin hitz egiteko ohiturarik, haiek elkarriketa hasiz gero? Zuek hasi al duzue inoiz elkarriketarik?
- Atzerrian euskaldunik aurkituz gero sentitzen al duzue kidetasunik?

2. “Gaua ez zen ezertaz hitz egiteko une egokia, une egokirik bazegoen. Gauak norberaren alde ilun guztiak areagotzen ditu: minak, kezak, ezinak. Eta eguzkia ateratzen denean, kito, gehienak argi izpitan galtzen dira, airean dabilen hautsaren artean” (67. or.).

- Ados zaudete baieztapenarekin?
- Zein da kezkez hitz egiteko unerik aproposena, zuen ustez?

3. “Begirada jolastiarekin begiratu zion Barbarak aitari, probokatzaile. Dorletaren iguala zen horretan, bai probokazio jostarian, baita horri lotutako begiradan ere. Nola zen posible horrelako ezaugarri berezia odolean gordetzea?” (68. or.).

- Horrelako ezaugarriak odolean gorde daitezkeela uste duzue? Ala imitazioz ikasten ditugu?
- Zein ezaugarri jaso duzue zuek gurasoengandik edo zaindu zintuztenengandik?

4. “—Aita, mesedez, JJ maritxua da, eta badakizu.

—Bai, baina nik zer dakit, ba, zer zabiltzaten gaur egungo gazteak, orain neskekin orain mutilekin... Ez nintzateke batere harrituko.

—Eta neska batekin hasiko banintz?

Berriro ere begirada probokatzailea. Ez zen horretaz hitz egiten zuten lehen aldia, alabak esan izan zion ez zela neskazalea, aitzak esan izan zion ez zitzaiola axola, aitortu zion arren arraroa egingo zitzaiola.

Probokatzeagatik atera zuen gaia berriro, gustatu egiten zitzaion aita estutzea.

—Erabaki duzu zer egingo duzun datorren urtean? Berehala izango da matrikulazio epea.

—Gaia aldatzen, e, aita? Niri ez zait inporta zu mutil batekin bazabiltza. A! Horregatik ez didazu kontatu nahi... Nola du izena?

—Leloa” (69. or.).

- Zuek ere nabaritu al duzue belaunaldien arteko alderik halako gaietan?
- Esan ala entzun al duzue “gaur egungo gazteak...” esaldia, mespretxuz-edo?
- Zer leporatzen diete Millenial edo Z belaunaldikoek Boomerrei? Eta kontrara?



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



V. LANKETA (5. atala)




ULERMENA

1. Zergatik egin zuen Dorletak ihes 1984an?
2. Zer gehiago kontatu zion Juan Mujikak Barbarari Sevillako kartzelara bisitan joan zitzaionean?
3. Barbara Leitzara bueltatu zen, eta amona Baleni bisita egitera joan zen Betelura berriz ere. Nor aipatzen hasi zen amona elkartu zirenean?
4. Zertarako aurkitu nahi zuen amona Balenek Miguel?
5. Non topatu zuen Barbarak Pariseko bigarren helbidea?
6. Zer kontatu zion Dorleta bizi zen eraikineko atezainak Barbarari?
7. Nori deitu zion Barbarak ondoren?
8. Zergatik uste zuen Barbarak bere harreman sentimentalek ez zutela funtzionatzen?



LEXIKOA

Osatu gurutzegrama definizio bakoitzari dagokion hitza asmatuta.



Idatzi behar nizekizunak Lanketa didaktikoak



											a 11		13
								7		b		12	
	1			c					9				
	d			e A	U	R	R	E	I	K	U	S	I
					f						g		
h		3 T	4		i U	* Z	5 K	8 U	R		j		
	k	E					l	R		10			
	m	M			+			R			<		
	2 n	A				o	6	A					
					p			T		q			
		r						U					
						#							

Goitik behera (zenbakiak)

1. Zer da Barbara amona Balenentzat?
2. Liburuaren azalean agertzen den objektua, garai batean idazteko erabiltzen zena.
3. Burugogorkeria.
4. Konturatu.
5. Sute bat dagoenean sortzen den gasa, gehienetan iluna.
6. Arakatu, azertu.
7. Zalantza edo susmoa adierazten duen partikula.
8. Gastatu; erabiltzearen ondorioz berria izateari utzi.
9. Emozio.
10. Arretaz begiratu.
11. Toki.
12. Beste era bateko.
13. Desio, gurari.

Behetik gora (ikurrak)

- + Azpijokoa, amarrua.
* Tentsioan, gogor.
Duda-mudatan, zalantzan.
< Buelta, jira.

Ezkerretik eskuinera (letrak)

- a) Behar (egin), Mendebaldean.
- b) Nerea Loiola idazlearen jaioterria.
- c) Ezezagun.
- d) Aurreko urtean.
- e) Aldez aurretik ikusi.
- f) Izenordaina, 2. pertsona singularra.
- g) (Nondik) kanpo.
- h) Alkandorak lotzeko balio duen objektu txikia eta biribila.
- i) Estu.
- j) Musika nota.
- k) Premia, beharizana.
- l) Baliatu.
- m) Zer da amona Balen Abelentzat?
- n) Gehiegi, Mendebaldean.
- o) Zer da Dorleta Barbararentzat?
- p) Entzun, ulertu.
- q) Gorputz atala, jateko eta hitz egiteko beharrezkoa.
- r) Putz eginez zerbait handiago egin.



Idatzi behar nizekinak Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

1. Zehar estiloa

Atal hasieran, Barbarak Juan Mujikarekin izandako elkarrizketaren berri ematen zaigu. Hala ere, ez zaigu elkarrizketarik ageri. Bestalde, atalean zehar, Jirekin nahiz Balenekin zenbait elkarrizketa ditu Barbarak.

Eman Juanekiko elkarrizketa, elkarrizketa forman; eta gero, aukeratu besteekin izandako elkarrizketa bat eta kontatu zeharka, paragrafo batean.

2. Berridazketak

Berridatzi esaldiak proposatutako egitura erabilita.

a) Barbarak bazekien unetxo bat besterik ez zela izango, berehala egongo zela berriz isilik. (baino)

b) Seinale ona zela pentsatu zuen, langile horiek guztiek bertan lan baino zerbait gehiago ere egiten zuten seinale. (adierazten zuen)

c) Zenbat eta gertuago Parisetik, orduan eta ezkorrago zegoen. (ahala)

d) Desagertuak ziren lehen eguneko begirada akusatzaileak, dena zen irribarre eta hitz gozo. (besterik ez)



MINTZAMENA

1. Lau eszena ditu atal honek. Aukeratu bana, eta kontatu gainerakoei ahalik eta zehatzen.

- Leitzako etxea
- Mujikarekin elkartu da
- Amama bisitatu du
- Pariserako bidaia

2. Zer uste duzue gertatu zaiola Dorletari?

3. Zertarako deituko dio Barbarak Matiasi? Zer gertatuko da?

4. “Bigarren aldiz Parisera, pentsatu zuen Barbarak *play* botoiari sakatzean, arrazoi berberarengatik baina helbide desberdin batera. Zarata. Horixe behar zuen, bada, une horretan. Buruko zarata estaliko zion



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



zarata handiago bat. Topera jarri zuen bolumena, eta burua leihoko beiraren kontra pausatu zuen. (...) Alboko bi emakumeei begira jarri zen haiek konturatu gabe. Ez zuten hitz askorik trukatu tartetxo horretan, baina berehala jakin zuen elkarrekin bidaiatzen zutela” (85.-86. or.).

- Gustuko dituzue tren bidaiak? Egin duzue inoiz horrelako bidai luzeak? Zer egiteko aprobetxatzen duzue? Musika entzuteko, irakurtzeko, leihotik begiratzeko...?
- Erreparatu ohi diezue gainerako bidaiariei? Sortu ohi dituzue haiei lotutako istorioak? Saiatzen zarete haien arteko harremana zein den asmatzen?

5. “Pasahitza eskatzen dit” (84. or.).

- Jaiotza-datak, inizialak... halakorik erabili al duzue inoiz pasahitzetan?
- Pasahitz bera erabiltzen al duzue zenbait kontutarako? Aldaerak? Pasahitz bana?
- Segurtasun-gomendioei jarraitzen diezue? (Maiuskulak eta minuskulak nahastu, zenbakiak, bestelako zeinuak...)
- Badaki inork zuen pasahitzik? Zein arrisku izan ditzake pasahitza esateak, zuen ustez?

6. Musika entzuteko Barbarak Discmana erabiltzen duela irakurri dugu. 2004. urtea zen.

- Erabiltzen zenituzten Discmana eta Walkmana? Musika entzuteko zein beste modu erabili izan duzue?
- “Adierazi zure jaiotza data, ezagutu duzun teknologia bat esanda”. Modan jarri zen Twitterren jolas hori. Zein aipatuko zenukete zuek?

OHARRA: Hurrengo saiorako irakurri 6. eta 7. atalak

VI. LANKETA (6. eta 7. atalak)



ULERMENA

6. atala. Erantzun galderak.

1. Hilabete batzuk lehenago, Abel joan zitzaion Dorletari bisitan Parisera, eta, 2002ko martxoan, bizirik zeuzkan egonaldi hartako oroitzapenak. Zein oroitzapen, adibidez?
2. Dorletaren berririk gabe, haren bila joan zen Abel, baina Dorletak ez zion atea ireki, ez zegoen inor. Nola sartu zen etxe horretara?
3. Nola zegoen Dorletaren etxea sartu zenean?
4. Zergatik ez zion deitu poliziari Abelek?
5. Zer berri zeukan atezainak Abelek galdetu zionean?
6. Zer zekien Juan Mujikak?
7. Nor zen Sophie?
8. Zergatik eduki zuen Barbarak antsietate krisia?

7. atala. Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak




1. Atezainak erakutsitako kutzak arratsalde hartan bertan hartu zituen Barbarak.
2. Barbara oso eroso sentitzen zen ispiluaren aurrean bere gorputzari begira.
3. Barbara ez zen entrenatzailearen kontrako epaiketari aurre egiteko gai sentitzen.
4. Barbara ez zen batere gustura sentitzen Matiasekin.
5. Barbarak eskatu zion Matiasi hurrengo goizean kutzak hartzen lagun ziezaion.
6. Matiasek eta Barbarak musu eman zioten elkarri jatetxean.



LEXIKOA

Osatu gurutzegrama hitz bakoitzari dagokion sinonimoa asmatuta.



HORIZONTALAK

3. Barre egiteko gogo. 99. or.
6. Hildako gorputza. 101. or.
7. Egonezin. 102. or.
9. Hurbil. 105. or.
10. Pisu. 108. or.

BERTIKALAK

1. Auzokide. 101. or.
2. Adi. 97. or.
4. Gogoratu. 97. or.
5. Nork daki. 101. or.
8. Berriro. 104. or.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

1. Deklinabidea eta erregimen bereziko aditzak

Bete hutsuneak deklinabide-markak eta aditz laguntzaileak erabilita. Ondo erreparatu aditzak eskatzen duen kasuari.

- Oreka__ eusteko eskua etxebizitzako atean pausatu zuenean, zabaldu egin zen.
- Egongelan, lurrean eserita, bertan sakabanatuta zeuden paper__ begiratu bat eman zien, eta, ondoren, haiek jasotze__ ekin ____.
- Ispilu zabalaren aurrean zegoen aurpegia__ erreparatu ____.
- Behera jaitsi, eta tabernan zerbait hartzen itxoingo ____ erabaki zuen.
- Hitz egiten hasterako heldu zion berriz ere Matiasen Barbara__ mahai gainean pausatuta zeukan esku__.

2. ELKAR egitura

ELKAR egitura dezente ageri da atal honetan. Deklinatu esaldi hauek, eta sortu beste bina.

- Pariseko kaleak zeharkatu bitartean, Abelek oroitu zuen Dorletak eta biek elkar____ egin zutela bide hura azkeneko.
- Lehen solairura iritsi aurretik hasi ziren elkar__ botoi eta kremaileak askatzen, ordu txikitako maitaleak ibiltzen ziren moduan, pasioz.
- Elkar__ elikatu zuten izara horien artean.
- Goizaldeko lehen eguzki izpiek bien gorputzak ziprztindu arte iraun zuen eztandak, eta, eguzkiaren argiak hipnotizatuta bezala, elkar____ besarkatuta hartu zuten lo.


- a) _____
- b) _____



MINTZAMENA

1. Liburuaren erdia igaro dugu dagoeneko. Hartu liburu hasieran egindako pertsonaien deskribapenak, eta osatu. Zer dakigu haiei buruz? Nolakoak dira? Eta zer dugu oraindik jakiteko?

Barbara	Abel	Dorleta
Zer dakigu?	Zer dakigu?	Zer dakigu?
Zer ez dakigu?	Zer ez dakigu?	Zer ez dakigu?



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



Eta gainerako pertsonaiak? Zein izango da haien papera hemendik aurrera?

JJ	Matias	Balen	Juan Mujika
Anäelle	Gerardo	Sophie	Atezaina

2. “Amona bera ere ez zegoen, bada, oso distiratsu, baina ez zuen medikurik ikusi nahi, joanez gero zerbait aurkituko ziotela zioen. Kaskagor halakoa” (100. or.).

- Ezagutzen al duzue halako norbait?
- Eta aurkakorik, hau da, hipokondriakorik?

3. “Etxeko gauzetan pentsatzen egin zuen aurrera, egin behar zituen azken metroetan ez pentsatzeko. Bertigoa ematen zion. Kanpotik ikusi zituen egurrezko eskailera ilunak, eta Dorletaren eskua gogoratu zuen eskudelari helduta, Abeli ordura arteko indar handienarekin tiraka. (...) Lehen solairura iritsi aurretik hasi ziren elkarri botoi eta kremailerak askatzen, ordu txikitako maitaleak ibiltzen ziren moduan, pasioz” (100. or.).

- Tokiek jendea gogorarazten al dizuete?
- Beste zerbaitek (usainek, kanteak, filmek...)?
- Utzi al diozue tokiren batera joateari, abestiren bat entzuteari, filmen bat ikusteari, norbait gogorarazten dizuelako?

4. “Eta ez, ez dakit non egoten den hemen ez dagoenean, ez dakit jendeak zergatik uste duen atezainek dena jakin behar dugula” (105. or.).

- Zuek baduzue auzokide begiluzerik?
- Eta zuek ibiltzen zarete kuxkuxean zaratak-eta entzutean?

5. Barbarak Matiasekin geratzeko jeansak eta elastiko beltza janzteara erabaki du, baina Matias ikusten duenean, damutu egiten da, mutila hitzordu baterako prestatua doala ikusten baitu.

- Erraz aukeratzen duzue zer arropa jantzi zenbait egoeratarako (lan-elkarrizketa, parranda, lehen hitzordua...)?
- Aurretik pentsatuta izaten duzue ala momentuan bertan erabakitzen duzue? Garrantzirik ematen al diozue?

OHARRA: Hurrengo saiorako irakurri 8. eta 9. atalak



VII. LANKETA (8. eta 9. atalak)



ULERMENA

8. atala. Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

1. Biarritzera heldu bezain laster jaso zuen Abelek Sophieren deia.
2. Sophiek bazekien nor zen Abel.
3. Sophiek bazekien non topatu Dorleta, lagun minak baitziren.
4. Abelek Barbarak ezer ez jakiteko erabaki zuen Biarritzen elkartzea Sophiekin, eta ez Leitzan.
5. Dorleta Sophie baino hamar urte nagusiagoa zen.
6. Abelek uste zuen Dorleta eta Sophie maitaleak zirela eta Dorleta Sophieren erruz zegoela hilda.
7. Abelek salaketa jartzera animatu zuen alaba, baina Barbarak azkenean ez zuen jarri.

9. atala. Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

1. Eguerdi aldera joan ziren Barbara eta Matias kutxen bila.
2. Atezainak bere telefonoa eman zion Barbarari kontaktuan jarraitzeko.
3. Barbarari kutxetako gauzak beste pertsona batenak izateak beldurra ematen zion.
4. Kutxak zabaltzen hasi aurretik, Barbarak eta Matiasak kafe bat hartu zuten kafetegi txiki batean.
5. Kutxa batean, Gerardo Masilloren frantsesezko azken eleberria aurkitu zuten.
6. Barbarak Garazira laguntzeko eskatu zion Matiasi.
7. Barbarak oraindik ere uste zuen ama bizirik egon zitekeela.
8. Sophiek bazekien Barbararen aita hilda zegoela.
9. Sophiek Masilloren familiaren inguruko susmo txarrak zituen.
10. Barbarak aurretik Sophiekin berba egin ahal izateko atzeratu zuen Garazirako bidaia.



Idatzi behar nizekinak Lanketa didaktikoak



Abelek, autoan, Anariren lehen diskoa jarri eta kendu du. Hona hemen diskoko lehen kantua. Entzun ahala hutsuneak bete. Istorioarekin zenbait lotura ditu abestiak. Zein?

ANARI - GURE MUNDUA:

Gaua da kotxean sartzen naiz, euri malkoak parabrisan eta ilargiak ez dit esaten ez non, norekin ikusten _____ gau honetan.

Gidatu, gidatu beti aurrera; _____ deritzon lekura, zu existitzen ez zaren lur zatira.

Ze ahaztu nahi nituzke zure _____,

telefono zenbakia eta besoko tatuagia (tatuajea)

Erretrobisoretik pasatzen den mundu zatien batuketa da orain zugandik _____ nauena.

Euriak gogor dirau eta begiak busti dizkit, zapatak, gogoia ere.



LEXIKOA

Bete hutsuneak zerrendako hitz egokia erabilita.

ustekabe - itsumustuan - muturtuta - bazterbide - errailetan - gaitzespena
xumea - lanbrotsua - irrika - zaurgarri - tupustean - beroaldia - samur

- a) Ezezkoa atera zitzaion Abeli _____ (pentsatu gabe). Barbarak ezin zuen ezer jakin, nahikoa zuen orain gaixoak zeukanarekin.
- b) Zuri jarri zen Barbara _____ (bat-batean). Ezin zen kasualitatea izan.
- c) Isabelen alaba zara? —esan zion frantsestutako ahots _____ (leun, goxo) batek gaztelaniaz.
- d) Poliziari deitu beharko liokeela uste zuen, esku artetik ihes egiten ari zitzaion kontua. _____ (barruan) zerbaitek, ordea, halakorik ez egiteko eskatzen zion.
- e) Eguerdi _____ (lainotsua) zen, eta Barbararen hoteleko logelan zeuden biak.
- f) Abelek Barbarari azaldu zion lan kontratu garrantzitsu bat itxi behar zuela bertan; baina aitaren aitzakiak adituta ere, _____ (haserre) geratu zen alaba.
- g) _____ (ezuste) handia hartu zuen Abelek emakumeak haren berri zuela adierazi zionean.
- h) Sophiek zigarroari begiratu zion disimuluan, eta, ezer esan ez bazion ere, Abelek haren _____ (onarpen falta) nabaritu zuen.
- i) Ez daukazu kutxetan zer dagoen jakiteko sekulako _____ (gogo bizia)?
- j) Dutzara sartu zen. Ur beroa gorputzean behera irristatu ahala, _____ (eszitazioa) leundu zitzaion pixkanaka, eta gogoak Garazirako bidea hartu zuen.
- k) Burua Matiasen bularrean ezkutatu zuen hori esan ondoren, eta arnasa hartu zuen sakon. Egia esan zion! _____ (hauskor) agertu zen Matiasen aurrean, soilik JJrekin egiten zuen moduan.
- l) Sophiek eten zuen Abelen pentsamendu metraileta, eta aurrekoan bezalako azalpen _____ (xaloa) eman zion: lagunak zirela.
- m) Autoa gelditu zuen autobide ertzeko lehen _____ (bazter) zabalean; arnasa falta zitzaion ohartu zelako, zuzen bazebilen, Dorleta hilda zegoela.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

ERE partikula


Osatu esaldiak ERE, BAITA ... ERE eta EZTA ... ERE egiturak txertatuta.

1. Dorleta eta biak lagun minak zirela esan zion. (ere)
2. Abelek galdetu zion ea Dorletaren berririk zuen, eta berak gauza bera galdetu behar ziola erantzun zion Sophie. (ere)
3. Begien parean zuena ez zetorren bat Dorletaren etxearekin, bizimoduarekin. (ezta ere)
4. Egun hartan, Abelek ez zien Dorletaren hitzei garrantzi berezirik eman, ez zion zenbatekorik galdetu, hain ondo joateko zer egin zuen. (ezta ere)
5. Baietz erantzun zion Barbarak, kafeen bila harekin joango zela erantzun zion. (baita ere)
6. Orrialde batean gelditu zen, beste ohar bat ikusi zuelako arkatzez idatzita; aurrekoa bezala, frantsesez zegoen hura. (ere)
7. Oroitu zuen atezainak esan ziola aita amaren bila ibili zela. (ere)
8. Eta zertarako ukatu: ama bizirik aurkituko zuelako esperantza txiki bat piztu zitzaion. (ere)
9. Ez dakit Matias tartean den, baina ez zaitez harekin Garazira joan, mesedez. (ere)
10. Ustekabean aspaldiko lagun bat berarekin jarri zen harremanetan, eta, laguna Parisen zegoenez, pare bat egun egingo zituzten elkarrekin. (ere)



MINTZAMENA

1. Bi atal hauetan irakurri dugu Sophie harremanetan jarri dela bai Abelekin, bai Barbararekin, baina ez da guztiz argitzen zelako harremana duen Dorletarekin.
 - Nor da Sophie, zuen ustez?
 - Zer lotura dauka Dorletarekin?
2. Jk ageri ez den lehenengo atala da hau. Barbarak mezua bidali dio, haren aurrerapenak kontatzeko. Dena kontatzen dionez, dena daki. Demagun, liburuan kontatzen ez bada ere, Jk egunerokoa idazten duela zintzo-zintzo gauero, eta Barbarak oraingo honetan ere dena kontatu diola.
 - Nola ikusten du Barbara? Ama aurkituko duela uste du? Zer iritzi du gertatu den honetaz guztiaz?
 - Zertan dabil Dorleta? Nor uste du dela Sophie? Zer lotura dauka Dorletarekin?
 - Matiasekin erne ibiltzeko ohartarazi dio Barbarari. Zergatik? Gustatzen al zaio Barbararen mutil-lagun berria? Zer uste du gertatuko dela?
3. “Barbarak prestatutako musika CD bilduma bat zeukan, eta harrapatu zuen lehena sartu zuen entzungailuan: Anariren izen bereko diskoa. Haren ahots dardartia entzuten hasi orduko itzali zuen Abelek, eta isilik jarraitu zuen gidatzen” (121. or.).



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



- Zer nolako musika duzue gustuko autoan entzuteko? Ala nahiago izaten duzue irratia?
 - Aparkatzeko musika itzali behar izaten duen jende mota hori zarete?
 - Abesten duzue autoan? Eta beste nonbait?
4. “Oso sentsazio arraroa izan zen. Abelek apartatu behar izan zuen begirada Sophiek egiten ez zuelako” (124. or.).
- Inoiz sentitu zarete deseroso, norbaiten begirada finkoegia edo zorrotzegia delako?
 - Eta ez dizuetenean begietara begiratzen, nola sentitzen zarete?
5. “Liburuak, paperak, jantziak. Kutxa guztiak zabaldua, lehen begiratuan, ez zen besterik ikusten. Jende normalak bere etxean dituen gauza normalak” (130. or.).
- Zer dira “gauza normalak”, zuen ustez?
 - Gauzak gordetzeko ohitura duzue? Zenbatean behin botatzen dituzue erabiltzen ez dituzuen gauzak?
 - Non pilatzen dituzue?

OHARRA: Hurrengo saiorako irakurri 10., 11. eta 12. atalak

VIII. LANKETA (10., 11. eta 12. atalak)



ULERMENA

10. atala. Erantzun galderak:

1. Biarritzen egon eta gero, Abelek zer uste zuen Sophieri buruz?
2. Zer informazio eman zion Sophiek Abeli?
3. Zer deskubritu zuen Abelek Dorletaren fakturak ikusita?
4. Zer informazio eman zion Juanek Abeli telefonoz deitu zionean?
5. Nora joan zen ondoren Abel?
6. Zenbat denbora zeramaten Gerardok eta Anäellek Isabelen berririk gabe?
7. Gerardoren ustez, nolako idazlea zen Isabel?
8. Zein zen Anäellek Sophieri buruz zeukan iritzia?

11. atala. Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

1. Izenak, harremanak eta gertakariak idatzi eta ordenatu ondoren, Barbarak oso argi ikusi zuen dena.
2. Sophiek esnatu zuen Barbara, ate joka.
3. Matiasen bazekien zer deskubritu zuen izebak.
4. Barbarak Euskal Herriko lagun batekin zegoela geratuta esan zion Matiasi.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



5. Ganbarara igo zirenean, bertan zegoen beste gela txiki batean utzi zuten Barbara giltzaperatuta.

12. atala. Adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren:

1. Sophieren inguruko iritzi bera zeukaten Gerardok, Anäellek eta Abelek.
2. Garaziko etxera heltzeko argibideak Interneten aurkitu zituen Abelek.
3. Abelek ez zuen espero Garazin ezer garrantzitsurik topatzerik.
4. Abeli auto batek jarraitzen zion.
5. Dorletak Garaziko etxea erabat sekretuan mantendu zuen.
6. Liburu batzuen izenburu eta testuek eta Dorletak idatzitako orri batzuenek bat egiten zuten, baina liburuetan ez zen Dorleta izena agertzen, Isabel baizik.
7. Abelek silueta bat ikusi zuen bat-batean etxeko kanpoaldean.
8. Abelek ikusi zuen autoko atzerako ispilutik atzean zeukan kotxeko gidariak pistola bat atera zuela.



LEXIKOA

baino - arduratuta - berriro - sumatu - hots egin - enkantu - larregi - behar - otutzen - laga

Eman nabarmendutako hitzen sinonimo bana.

- a) Emakumea adeitsu agertu zen arren, Abelek hutsuneak **nabaritu** _____ zituen haren kontakizunean.
- b) Hori sinisteko **premia** _____ gorria zuen.
- c) Tira, ez du “Dorleta” esan, “Isabel” **baizik** _____.
- d) Ez, ez, oraintxe **deitu** _____ behar nizun: okertu egin dira gauzak hemen.
- e) Etxea egun batzuk lehenago **utzi** _____ zuen moduan aurkitu zuen Abelek.
- f) Berak Dorleta maite zuen, baina Dorletak denbora **gehiegi** _____ zeraman Isabel Fernandez izaten.
- g) Aurrekoan etxea hankaz gora aurkitzean euren lekura sartu zituen tiraderak atera zituen **ostera ere** _____.
- h) Ez zitzaion hain garrantzitsua izan zitekeen ezer **bururatzen** _____.
- i) Gerardo eta Anäelle ere oso **kezkatuta** _____ agertu ziren.
- j) Loratuta zegoen une horretan landarea, eta **xarma** _____ ematen zion etxeari.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

1. Antolatzaileak eta lokailuak

Osatu esaldiak taulako antolatzaile eta lokailuak erabilita.

hala ere - ordea - beraz - horregatik - tamalez - bestela - gainera - behintzat - batez ere

- Abelek zalantza egin zuen hasiera batean, amona Balenek eta berak bakarrik zekiten egia osoa. Baina, zer kristo, pentsatu zuen, ez daukat zer galdu. _____, bikote hark hartu zuen Isabel etxean gehien behar zuen unean, lagun egin ziren, lagundu egin zioten. **(Arrazoi bat gehitu nahi du)**
- Garaziko etxean zeukan bahituta, eta _____ ez zion etxe hura aipatu elkarrekin egon zirenean. **(Aurretik aipatutakoaren ondorioa eman nahi du)**
- Leitzara itzultzeko planak egiten ari ziren eta! Hala uste zuen, _____, Abelek, baina bazirudien Dorleta beste zerbait antolatzen ari zela bere kabuz. **(Adierazi nahi du agian haren ustea baino ez dela izango, baina hala uste duela).**
- Isabelen lagun handiak izan ginen garai batean. Orain, _____, apenas daukagun harremanik. **(Penaz dio)**
- Bertan ageri ziren pertsona guztiek ezagutu zuten haren ama, izan Dorleta moduan izan Isabel moduan. Barbarak, _____, apenas zekien nor zen Dorleta, eta Isabel ezezagun hutsa zuen. **(Besteek ez bezala)**
- Ziur zerbait garrantzitsua izan behar duela, _____ izebak ez luke lehendabizi niri kontatzeko erreparorik izango. **(Hori horrela izango ez balitz)**
- Dorletaren hango etxera iristeko argibideak erruz begiratu zituen Interneten, baina, _____, herrian bertan laguntza eskatu beharko zuen etxea aurkitu ezinda zebilelako. **(Hori eginda ere)**
- Arreta eman zion teilatuko leihoetatik sartzen zen argitasunak, _____, eguna lainotuta zegoelako. **(Jarraian datorrena azpimarratu nahi du)**
- Etxea egun batzuk lehenago utzi zuen moduan aurkitu zuen Abelek, ez zen, _____, inor bertan ibili hura kanpoan egon zen bitartean. **(Ondorioa adieraziko du jarraian)**

2. -(E)LAKOAN egitura


-lakoan egon / -lako ustean egon:

Euria egingo duelakoan, aterkia ekarri dut.

Esaldi horretan, iritzi bat eman du, irudipena, baita haren ondorioa ere. Honela ere adierazi genezake:

Euria egingo duelakoan nagoenez, aterkia ekarri dut.

Euria egingo duela pentsatuta, aterkia ekarri dut.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



Lotu esaldi hasierak eta bukaerak.

1. Hamaikak zirela segurutzat jota begiratu zion erlojuari,
 2. Abelek harrituta begiratu zuen atzerako ispilutik, eta, kalez jantzitako jendarme bat izango zelakoan,
 3. Toallarekin bildu zenean entzun zuen telefonoa. JJ izango zelakoan
- a) gerturatu zen lasai mugikorra hartzera.
 - b) lo hartu zuelako Sophie ate joka izango zuelakoan.
 - c) bazter batean gelditu zuen autoa.



MINTZAMENA

1. Atal honetan informazio berria izan dugu ia pertsonaia guztiei buruz. Egin errepasoa:

Abel	Matias	Dorleta/Isabel
Anäelle	Gerardo	Sophie

Zer uste duzue gertatuko dela azken atalean?

2. Hain zegoen Barbara bere lanean sartuta, ahaztu egin zuen ordu txikitan ari zela” (148. or.).
 - Gertatzen al zaizue, Barbarari bezala, buru-belarri zabilatzatenean zerbaitetan, denborak ihes egiten dizuela? Zertan zabilatzatenean gertatzen zaizue?
 - Bada gauez gehiago eta hobeto kontzentratzen den jendea. Beste batzuek goizez egiten dute hobeto lan. Zuek zer zarete, gautxoriak? Goiztiarrak?
3. “Bazitekeen Dorleta bertan egotea, Garazin, zerbaitetik edo norbaitengandik ihesi joanda. Agian ikaratu egin zen zerbaitekin, eta bertan ezkutatu zen. Pentsamendu ilunago bat ere bururatu zitzaion jarraian: agian Sophiekin Dorleta Garaziko etxean zeukan bahituta, eta horregatik ez zion etxe hura aipatu elkarrekin egon zirenean. Azken pentsamendu hori baztertzan saiatu zen, gehiago zirudien pelikula batekoa bizitza errealekoa baino” (142. or.).
 - Abelek, urduri jartzen den bakoitzean, hipotesi bitxiak egiteko joera du. Hala eman du istorio osoa. Zuek baduzue halako joerarik? Gehiegi kezkatu eta urrunegi joaten zarete zuen beldur eta hipotesietan?
4. Barbara lotsatu egin da aitak maite duela esan dionean.
 - Nerabeak zinetenean, zuei ere lotsa ematen zizuen gurasoek horrelakoak esateak?
 - “Maite zaitut” askotan esateko ohiturarik duzue? Nori adierazten diozue erraz maite duzuela eta nori ez hain erraz?
5. “Arraroa egin zitzaion biak frantsesez hizketan aritzea, Barbararekin gaztelania jatorrean aritzen baitziren biak, eta ahaztu egiten zitzaion ama hizkuntza frantsesa zutela biek” (153. or.).



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



- Gertatzen zaizue inguruko norbaitekin, beste hizkuntza batean aritzen denean arraro egiten zaizuela?
 - Zein hizkuntza hitz egiten duzue? Non eta norekin hitz egiten duzue bakoitza?
6. “—Eskerrik asko —erantzun zion Abelek, oraindik apur bat lotsatuta lehen hitza frantsesez eman ziolako gazte hari”(158. or.).
- Inoiz gertatu zaizue halakorik, erdalduntzat hartu duzuen euskaldunen batekin? Inoiz sentitu duzue?
 - Badakizue estres linguistikoa zer den?

OHARRA: Hurrengo saiorako irakurri 13. eta epilogo atalak

IX. LANKETA (13. atala eta Epilogo)



ULERMENA

13. atala


1. Zer deskubritu zuen Barbarak trastelekuan?
2. Atea zabaldu zen bat-batean. Nola sentitu zen Barbara une hartan?
3. Nola hil zen Dorleta, Matiasen ustez?
4. Matiasek lagundu nahi zion Barbarari?
5. Nola hil zen Dorleta, Anäelleren esanetan?
6. Zergatik bultzatu zuen Gerardok Dorleta?
7. Zer deskubritu zuen Matiasek trasteleku hartan, Dorleta eta Abelen heriotzez gain?

Epilogo

1. Nola atera zen Barbara epaiketatik?
2. Nor zeukan zain?
3. Zer opari eman zien?
4. Noiz ezagutuko zuen JJK Matias?

Esan honako esaldi hauek egia ala gezurra diren, eta gezurra bada, azaldu zergatik.

1. Dorleta istripu batean hil zen.
2. Gerardo bihotzekoak jota hil zen.
3. Barbarak kutxetan bere txikitako argazki bat aurkitu zuen.
4. Anäellek Barbarari ukabilkada eman zion, eta sudurra apurtu zion.
5. Barbara Matias bere alde jartzen saiatu zen Anäelleri aurre egiteko.
6. Anäellek Matiasi tiro egin zion bizkarrean, eta odol asko galdu zuen.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



7. Barbara argalago atera zen epaitegitik.
8. Barbarak nagusiaren kontrako salaketarekin aurrera jarraitzea erabaki zuen.
9. Barbarak lortu zuen Dorletaren liburua argitaratzea.
10. Dorletak liburuarekin batera gutun bat idatzi zion Barbarari, ihesaldiko bere sekretuak kontatzeko.
11. Matias Donibane Garazitik etorriko da Barbararekin egoteko.
12. Jjri Matias mutil katxarroa iruditu zitzaion.



LEXIKOA

Letrak ordenatuta, esan hitz hauetako bakoitzaren sinonimoa zein den. Beltzez nabarmenduta dagoen hizkia lehen letra da.

- | | |
|---|--|
| a) Gogoratu: <i>o o r t u i</i> | k) Jarraitu: <i>i s t e u g</i> |
| b) Zoro: <i>o e r</i> | l) Konturatu: <i>h t a r u o</i> |
| c) Hurbildu: <i>a u u g e r t t r</i> | m) Motel: <i>o t s a n m</i> |
| d) Aho bete hortz: <i>e z r u u a t l r</i> | n) Salto: <i>z i j a u</i> |
| e) Agertzen: <i>t a z a l e n z</i> | o) Ustekabea: <i>a n z e u s e t</i> |
| f) Isiotu: <i>u z i t p</i> | p) Haserre: <i>e e n a u t t r g a</i> |
| g) Gauza izan: <i>i a z g n i a</i> | q) Deseraiki, bota: <i>s t i a r i e</i> |
| h) Zendu: <i>l i h</i> | r) Inoiz ez: <i>e s k l a u</i> |
| i) Ihes: <i>z i r i t u</i> | s) Beldurtuta: <i>k t i r a a u t a</i> |
| j) Momentu: <i>n e u</i> | |



GRAMATIKA

1. Erdal gerundioa

- a) **-Z: NOLA galderari erantzuten dio, eta momentu berean gertatzen dira ekintza biak.**
 - “Negar zotinka, buruarekin ezezko keinuak **eginez**, bere baitarako hizketan hasi zen” (173. or.)
- b) **-TA/DA: NOLA galderari erantzuten dio, baina ondoren ere adierazi nahi du.**
 - “—Istripu bat izan zen... —esan zuen Matiassek, gehiago bere burua konbentzitzeko eta ez hainbeste Barbarari **zuzenduta**” (171. or.).
 - “Halako batean, indarrak auskalo nondik **aterata** burua tentetu, eta Matiasi zuzendu zitzaion amorru bizian” (173. or.).
 - “—Izeba, osaba Gerardo bihotzekoak **jota** hil zen, ezta? Esadazu hala izan zela, mesedez” (177. or.).
- c) **-T(Z)EN: ZERTAN galderari erantzuten dio. Nominalizazioa da.**
 - “Barbara pauso bizian **mugitzen** hasi zen trasteleku txikian, kaxa eta liburu artetik zirkuitu moduko bat ibiliko balu bezala, begirada lurretik altxatu gabe eta sudurra lauzpabost segundoero igurzten” (169. or.).
 - “Azken aldiz epaitegirantz burua jiratu eta atzera begiratu zuenean, Irene fiskala ikusi zuen epaitegitik **ateratzen**” (182. or.).
- d) **-KA: NOLA galderari erantzuten dio, ekintza errepikatuetan.**
 - “Ukabilak itxi zituen, eta hortzak estututa galdetu zuen, erdi **oihuka** erdi **erreguka**” (168. or.).



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



Azaldutakoa kontuan hartuta, bete hutsuneak egitura egokia erabiliz.

1. Barbarak inork erantzuten ez zuela _____ (ikusi), ate _____ (jo) hasi zen amorratuta.
2. Barbarak _____ (oihu) jarraitu zuen.
3. Barbara, _____ (negar) egon ondoren, handik nola atera zitekeen pentsatzen saiatu zen.
4. Barbarak sudurra _____ (igurtzi) eman du istorio osoa.
5. Eskuizkribua _____ (aztertu) konturatu zen Barbara kaxako liburuaren originala zela.
6. Eskuizkribuak eta liburuak besteen ondoan _____ (utzi) joan zen Barbara azken kutxara.
7. Matiasek bere izebari gezurra _____ (esan) nahi izan zuen Barbara babestu.
8. Gerardok Dorleta _____ (bultzatu) hil zuen.
9. Anäellek, Matiasek erantzuten ez ziola _____ (ikusi), esku dardarti bat eskaini zion.
10. Anäellek, makulua _____ (astindu), kolpea eman zion Barbarari aurpegian.
11. Matiasek bere izebaren gainera salto _____ (egin) babestu zuen Barbara.

2. Aditz trinkoak

Kokatu taulako aditzak dagozkien esaldietan.

zegokien - zeuden (x4) - zegoen - zihoan - zeukaten - bazekien - zeukan - ziruditen

1. Kartoizko kutxa gehienak bazterretan txukun pilatuta _____ arren, ba _____ hiru haietatik bereiz.
2. Gerturatu egin zen, sudurra igurtzi zuen behetik gora, eta barrenean zegoenari begiratu: eskuizkribuak _____.
3. Kutxa horietan _____ eskuizkribu guztiak atera, eta _____ liburuarekin batera kokatu zituen lurrean.
4. Hasperen egin zuen, eta begiak estali zituen bi eskuekin; sekulako negargura _____ berriz ere, baina ez zitzaion malkorik ateratzen.
5. Matias bidegurutze baten erdian _____-la ulertu zuen Barbarak, eta _____ hark izebarekiko zuen maitasunak gainditu egiten zuela harekiko senti zezakeen edozer.
6. Ordenagailuz idatziak _____ orri zuriak, baina eskuz idatzitako ohar mordoxka bat _____ bazter guztietan.
7. Lehen orria irakurtzen hastera _____ unean zabaldu zen atea.

Orain, eman liburuari bukaera alternatibo bat. Horretarako, galdera lagungarri hauek erabil ditzakezu:

Zer gertatu zen benetan trasteleku hartan? Nola lortu zuen Barbarak benetan bertatik irtetea? Zer zekien Barbarak? Zer zeraman poltsikoan Matiasek? Nondik zetorren? Nora zihoan? Zer zekien pertsonaia bakoitzak? Zer zeukaten ezkutuan?... Trinkoak kontuan hartu amaiera idaztean.



Idatzi behar nizkizunak Lanketa didaktikoak



MINTZAMENA

1. Liburuan sekretuak eta gezurrak errepikatzen dira etengabe. Zuk badakizu sekreturik gordetzen? Nori kontatzen dizkiozu zure sekretuak? Zure sekretu bat kontatuko balute, haserretuko zinateke? Kontatu duzu baten bat? Eta gezurrak? Esan al duzu inoiz gezur potolorik?
2. “—Izeba, hau guztia amaitu behar duzu, egia kontatu behar duzu, kontzientziaren harrak jan egingo zaitu bestela. Nola lortzen duzu gauetan lo egitea?
Barbarak begirada altxatu zuen berriz ere, eta Anäelleri begiratu zion. Emakumeak aurpegia guztiz itxuragabetuta zeukan, begirada ero batek hartua zuen goitik behera, beste emakume bat zirudien. —Badakizu zure osabak ere horixe bera esaten zidala azkenaldian? Egin ondoren, ordea, alferrik da damutzea. Harengatik izan balitz galdu genuen dena...” (177. or.).
 - Masillo egin zuenaz damutzen hasia zenez, Anaëlek hil egin zuen. Batzuetan gauzak egiten ditugu eta damutu egiten gara. Zuek damutu zarete inoiz egin duzuen zerbaitez? Atzera egin ahal izango bazenute, zerbait aldatuko zenukete?
 - Zuen ustez, mundu guztiak sentitzen al du kontzientzia?
 - Beti egia esaten duela dioen jendea ere badago. Halakorik dagoenik uste duzue? Beti esan behar da egia?
3. “Epategiko eskailerak mantso jaitsi zituen Barbarak. Behean zain, gehien maite zituen bi pertsonak zeuden: amona Balen, gurpil aulki batean; eta hari tiraka, irribarretsu, JJ” (181. or.).
 - Familia ez omen da aukeratzen, lagunak bai. Ados zaudete horrekin?
 - Familia-harremanak betiko al dira? Lagun-harremanak?
 - Uste duzu familiarekiko lotura beti zaindu behar dela? Zergatik?
 - Familia odolak ala harremanak sortzen du? Hau da, lagunak izan daitezke familia?
4. “Azken kutxan aurkitu zuenak zur eta lur utzi zuen: eskuizkribuko izenburuaren alboan Gerardo Masillo jarri beharrean Dorleta Barriola jartzen zuen. Arnasa eten zitzaion Barbarari. Orri sorta altxatu, eta eskuizkribu horren izenburu berbera zuten kutxako liburuei begiratu zien: Gerardo Masillo” (167. or.).
 - Dorletak diru truk beste norbaitek sinatzeko idaztea onartu zuen. Zuek onartuko al zenukete halakorik, ondo ordainduz gero?
5. Liburuaren bukaeran, misterio guztia argitu du Barbarak. Amaren liburua argitaratu du, epaiketan deklaratu... Bukaera zoriontsua dirudi. Matias bisitan joango zaio bi egunen buruan. Zer uste duzue gertatuko dela? Badute etorkizunik? Fidatuko zinatekete harekin? Eta Barbara fidatuko da?
6. Liburuko zein pasarte gustatu zaizue gehien? Eta zein gutxien? Zergatik? Zerbait aldatu ahalko bazenute, zer aldatuko zenukete?